



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 19koa, Horren bidez, Bizkaiko Oiola urtegiko uraren kalitatea bermatzeko hartutako neurriei buruz Arartekoaren parte hartzea amaitzen du.

Aurrekariak

1. Barakaldoko (...) Plataforma Ekologistak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak 2011ko maiatzean adostutako erabakiaren berri eman digu. Horren arabera, Barakaldon Oiola urtegiko ura edateko baimena eman du.

Erreklamazio horretan erabaki honen aurrekariak aipatzen ditu elkarteak. 2008ko uztailan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko zuzendaritzak ohiko kontrol batean lindano edo HCH (Hexaclorociclohexano) esaten zaion pestizida baten presentzia hauteman zuen Basatxuko edateko uraren araztegiaren (EUA). Kutsadura Oiola urtegiaren ingurutik zetorren. Analisisien emaitzetan HCH (alfa) isomero baten maila 154 ng/l zen, araudian aurreikusitako balioen gainetik zegoen. Hauteman zen egun berean Osasun Sailak EUA honetatik zetorren uraren erabilera eten egin zuen. Gorabehera honen arriskuak ebaluatzeko azterketan Sailak adierazten zuen kontsumitzaileek esposizio baxua izan zutela, osasunarentzako arrisku esanguratsurik gabea, eta segurutzat hartutako mailez azpikoa.

2008ko abuztuan ireki zen berriro EUA eta Oiola urtegia erabiltzea galarazi zen. Osasun eta Kontsumo Sailaren ekimenez Oiologo HCHren jarraipena egiteko batzorde bat deitu zen. Batzorde horretan zeuden Barakaldoko Udala, Trapagako Udala, URA Ur Agentzia, IHOBE sozietate publikoa eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.

2008ko urrian (...)k ingurumenari buruzko informazioa eskatu zien hainbat administraziori, HCH bidez egondako kutsadurari buruz, horren ondorioz urtegitik Barakaldoko ur horniketa sarerako lotura eten egin baitzen. Hala igorri zuen IHOBEra, URARA, Ur Partzuergora, Barakaldoko Udalera eta Osasun Sailera. Zehatz esateko, Osasun eta Kontsumo Sailari zuzendutako idatzian gune kutsatzaileari buruzko informazioa eskatu zuen, baita pestiziden gehiegizko mailak hauteman aurretik eta ondoren egindako azterketak ere. Azterketa epidemiologiko bat egiteko ere eskatu zuen, biztanleria lindanoaren eraginpean egon zela kontuan edukita. Era berean, horren inguruan egingo ziren administrazioko espediente guztietan Elkarteak interesatu gisa hartzeko eskatu zion.



IHOBEk baino ez zien igorri urtegiko kutsadurari buruzko informazioa, 2008ko azaroan. Isurketaren gunea zehatz kokatzerik egon ez den arren, Sozietate Publiko honen ustez lan aktiboa egiten ari zen informazioari buruz eta egoeraren ebaluazioa egiteko datu esanguratsuak izandakoan, Elkarteari jakinaraziko zizkion.

- 2.- Elkarateak Arartekoari kexa bat planteatu zion 2011ko ekainean administrazioaren jarduera hau zela eta; izan ere, bere interesatu baldintza berariaz aipatu arren, administrazio horiek ez zioten urtegia hornikuntza sarera lotzeko jarraitu ziren administrazio jardueren eta erabakien berri eman.

Plataformak komunikabideen bidez baino ez zuen jakin Osasun eta Kontsumo Sailak 2011ko maiatzaren 30ean urtegia hiri hornidura sarerako erabiltzeko baimena eman zuela, egindako neurketen arabera lindanoaren mugak uren kalitateko araudiaren parametroen barruan zeudela uste zuelako.

Hori dela eta, hala eskatutako administrazioek erabaki horren zergatiei buruz espedientean dagoen informazio guztia igor diezaiotela eskatzen du bere kexan. Era berean, elkarateak urtegitik datozen uren arriskuen, kontrolaren eta kalitatea hobetzeko kudeaketan parte hartze handiagoa eskatzen du.

- 3.- Kexa hau tramitera onartuta, gai honetan zerikusia duten administrazioei informazioa eskatu diegu. Hau da, Barakaldoko Udalari, URA Ur Agentziari, IHOBE sozietate publikoari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Osasun eta Kontsumo Sailari. Gure eskarian (...)k 2008ko urrian egindako eskariak izan duen erantzun ezari buruzko informazioa eskatu dugu. Oiola urtegitik datorren uraren erabilera baimentzeko erabakia justifikatzeko erabili den prozeduraz eta arrazoi teknikoek galdetu zuen, baita elkarte interesatu honek urtegitik datorren uraren kalitatearen kontrolaren kudeaketan parte hartzeko zituen aukerez ere.
- 4.- Gure eskariari erantzunez, Osasun eta Kontsumo Sailak jakinarazi digu Oiola urtegian eta Basatxu araztegian HCH hauteman ondoren egindako jardueri buruz dauden agiriak igorri zituela Elkartera. Dena dela, Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak hitza eman du elkarte ekologistarekin harreman arinagoa izango duela gai honi buruz, honen inguruan sortutako jarraipen batzordeetan parte hartzeko aukera aipatu gabe.



Gainerako administrazioek gorabehera honi buruz informatu gaituzte eta denak bat datoz Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoaren Zuzendaritzak osasun zaintzarako agintari legez dituen funtzio guztiekin, bai urtegiaren loturari buruz erabakiak hartzeko eta bai elkarteak batzorde horretan parte hartu behar ote duen erabakitzeko.

Igorritako informazioaren arabera, eta aurrekarien lehenengo puntuan azaldutako ekintzen arabera, 2008an hautemandako kutsadura urtegiaren arrora legez kanpo isuritako hondakin solidoren baten lixibiazioagatik sortu zen. Hautemandako HCH mailak (154 ng/l isometroetako batean) edateko uraren kalitatearen irizpideak ezartzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan pestizidentzat ezarritako gehieneko mailak baino handiagoak izan ziren. IHOBE Sozietate Publikoak, Ur Agentziak eta Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoaren Zuzendaritzak lantaldea eratu zuten, kutsaduraren iturria aurkitzeko. 2009an Oiola urtegiko HCH bidezko kutsaduraren jarraipena egiteko batzorde bat eratu zen eta batzorde horretan Barakaldoko Udalak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ere hartu zuten parte. Batzorde horretan urtegiko ura edateko baimena emateko jarduera-prozedura bat adostu zen. Uraren erabilera baimentzeko, astero HCHren laginketa ezarri zen eta sarrerako 50 l/s-ko emariaren kontrola ere bai. Segurtasun emaria gainditzen denean edo HCHren isometroren batean 20 ng/l gainditzen denean, urtegiaren sarrera ezeztatu egingo da.

Egiaztapen horien eta hartutako akordioen ondorioz, 2011ko maiatzean Osasun eta Kontsumo Sailak urtegiko ura edateko baimena eman zuen, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioak betetzen zituela ikusi baitzen eta Europa eta Estatuko araudietan ezarritako kalitate estandarrak ere bai.

- 5.- Ondoren bigarren gorabehera bat egon da, 2011ko azaroan, eta Oiola urtegia itxi egin behar izan da, jarduera-prozedura betetzen ez delako.

Osasun Publikoko Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, 2011ko azaroaren 5ean ur-emaria neurtzeko Gorrigako estazioan gehieneko emaria gainditu zelako itxi zen urtegia. Kasu honetan, alarma sistemaren funtzionamenduan egondako arazoengatik eten zen eta 2011ko azaroaren 8an aktibatu zen ixteko protokoloa. Esan beharra dago data horretara arte ez zela 10 ng/l baino gehiagoko HCHrik hauteman urtegian astero egiten den analisietan (HCH isometroak hautemateko gutxieneko maila). Baina urtegia itxi ondoren, uraren analisietan ikus daitekeenez HCHren isometroren batean 20 ng/l gainditu ziren (25,3 ng/l, 21 ,5 ng/l eta 30 ng/l lagin bereko bi isometrotan).



6.- Elkarteak berriro ere Arartekoarengana jo du 2012ko otsailean eta jakinarazi digu prentsaren bidez jakin duela urtegia ixteko segurtasun protokoloa abian jarri dela. Barakaldoko edateko uraren kalitateaz kezkatuta dagoela dio behin eta berriro eta informazio puntuala, egokia eta eguneratua eskura izateko beharra planteatzen du, baita eskumendun administrazioek hartutako erabakietan parte hartzeko aukera ere. Dena dela, elkarteak dio bigarren gorabehera honi buruz ez duela inolako informazio idatzirik jaso, ez urtegiko uren kalitateari buruz ez ixteko akordioari buruz.

Aurrekari horiek gogoan izanda, egokia iritzi diogu kexa-espeditente honi buruzko gogoeta batzuen berri ematea, erreklamazio honen xedeaz.

Gogoetak

1.- Kexaren xedearen zergatia (...) Plataforma Ekologistak formalizatutako informazio eskariak dira. Barakaldoko Oiola urtegiko urak edateko zuen kalitateari buruzko informazioa eskatu zuten, edateko uraren Basatxuko araztegian HCH (lindanoa) aurkitu zutelako.

Zehatz esateko, elkarteak dio ez duela behar adina informazio eta ezin dutela parte hartu gorabehera honen inguruan hartzen diren erabakietan. Erabakiak hartzen dituen batzordean Osasun eta Kontsumo Saila eta edateko uraren kalitatea kontrolatzeko, zaintzeko eta informatzeko sisteman parte hartzen duten gainerako administrazioak daude.

Planteamendu hau dela eta, edateko uren osasun zaintzarako aurreikusitako prozedurak baloratu beharra dago, baita kontrolerako eta prebentziorako mekanismoak eta kontsumitzaileei emandako informazioa ere. Bestalde, Elkarteak informazioa jasotzeko eta parte hartzeko egindako eskariari emandako erantzuna ere aztertuko dugu.

2. Oro har, edateko urak kontrolatzeko, zaintzeko eta informatzeko sistema ekainaren 16ko 178/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Bestalde, edateko urak bete beharreko osasun arloko irizpideak eta ur hori hartzen denetik kontsumitzaileen iturrirainoko instalazioek bete beharreko osasun arloko irizpideak edateko uraren irizpide sanitarioak ezartzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan daude.

Araudi honek ezartzen ditu hornidura kudeatzen duenaren autokontrol mekanismoak, kontsumitzaileen iturriko kontrola eta edateko uraren osasungarritasuna, kalitatea eta garbitasuna bermatzeko osasun arloko zaintza.



Edateko uraren osasun arloko zaintza, 140/2003 Errege Dekretuko 19. artikulua, osasun arloko agintariaren eskumena da, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzarena.

3. Oiola urtegitik datorren edateko uraren kontrolaren kasuan, Sailak, araudi honen ondoriozko eskumenak erabiliaz, 2008an hautemandako gorabeheran esku hartu du. Kasu honetan, 140/2003 EDko. 1. eranskinean banako pestizidentzat aurreikusitakoak baino lindanoaren balio parametrikoki handiagoak hauteman ziren eta urtegitiko ura edateko galaraztea erabaki zuen.

Lindano kutsaduraren iturria aurkitzeko, uraren kalitatea bermatzeko eta herritarrak hornitzeko eskumendun administrazioek jarraitu beharreko neurri zuzentzaileak eta aurrea hartzekoak koordinatu asmoz, Oiola urtegitiko HCH bidezko kutsaduraren jarraipen batzorde bat egin zen Osasun Publikoko Zuzendaritza buru zela. Batzorde honetan parte hartu dute urez hornitzeko ardura duten Udalek, hartzea, tratamendua eta uraren banaketa kudeatzen duenak eta administrazio hidraulikoak. Bere garaian lhobek ere hartu zuen parte, gorabehera eragin zuen isurketa gunea kokatzeko.

Batzorde honek, urtegitiko uraren kalitatea kontrolatzeko protokoloaren arabera, 2011ko maiatzean Oiola urtegitiko ura edateko baimena ematea erabaki zuen, urak OMEren gomendioak eta Europako eta Estatuko araudietan ezarritako kalitate estandarrak betetzen zituela ikusi ondoren.

Dena dela, Oiola urtegitiko ura edateko jarduera-prozedura 2011ko irailean finkatu zen eta erabiltzeko muga ezarri du HCH isometroak 20 ng/l baino kontzentrazio handiagoa badute. Sailak uste du muga hau beharrezkoa dela, lindanoa kutsatzaile organiko iraunkorra delako eta osasunerako eta ingurugirorako dituen arriskuak Osasunaren Mundu Erakundeak aitortu dituelako.

A posteriori, 2011ko azaroaren 5ean, ur-emia neurtzeko Gorrigako estazioko emari muga gainditu zen eta alarma sistemaren funtzionamenduan arazoak antzeman ziren. Hori dela-eta, Osasun Sailak hiria hornitzeko urtegia ixtea dekretatu du. Itxi ondoren egindako kontroletan gutxienez bitan gainditu izan da HCH isomeroren baten 20 ng/l maila.

Ebazpen hau eman den egunean, saila alarmaren transmisio sistemaren funtzionamendu arazoak konpontzeko zain dago.

Azken finean, Osasun eta Kontsumo Sailak, 2008ko uztailean lindanorako xedatutako parametroak betetzen ez zirela antzematean, Oiolako urtegiaren erabilera debekatzeko erabakia hartu zuela antzeman dezakegu. Uraren kalitatearen kontrola eta zaindarako sarean gainontzeko agente arduradunekin



koordinazioan, eta gertakariaren ondorioa eta urratzeak herritarren osasunean duen arriskua baloratu ondoren, urmaelaren ura erabiltzeko jarduera prozedura deiturikoan gaineratutako prebentziozko hainbat neurri zuzentzaile ezarri zituen. Neurri horien artean urmaelera sartzen den emaria kontrolatu eta lindanoaren maila parametrikoa 20 ng/l-ren azpitik mantendu behar dira. Horrela bada, 2011ko maiatzean urtegiaren erabilera berriro baimendu zuen. Hala eta guztiz ere, 2011ko azaroan, neurri horiek aplikatzean arazoak antzematean, berriro ere ixtea dekretatu du.

4. Azaletik aipatu beharko genuke kutsatzaile horren jatorria eta zein den bere uneko erreferentzia esparrua ur kontinentaletan eta, zehazki, edan daitekeen ura sortzera bideratutako uretan.

Lindanoa isomero gamma HCHak daukan produktu organiko kimikoa da. XX. mendearen bigarren erdialdean sortu eta pestizida gisa erabili zen. Azken urteetan zehar, pertsonen osasunean eta ingurumenean zituen ondorio larriei buruzko ikerketak zirela-eta, hainbat muga eta murrizketa ezarri dira.

Hasiera batean erkidegoko araudiak urteroko kontzentrazioko konposatu horietarako mugak gaineratu zituen. Horrela bada, 1984ko urriaren 9ko Kontseiluaren 84/491/CEE Zuzentarauak hexaclorociclohexano (HCH) isurpenetarako helburu eta balio mugak ezartzen zituen¹.

Bestalde, Osasunaren Munduko Erakundeak uraren kalitaterako gidan 2000 ng/l-ko erreferentzia balioa ezartzen du edan daitekeen urerako².

Ondoren, Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 850/2004 Araudiak, kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoak, HCHren ekoizpena eta erabilera debekatzea proposatu du. Erkidegoko araudi horrek erkidegoaren altxorrean Stockholmeko Hitzarmena gaineratu du. Bertan, lindanoa kutsatzaile organiko iraunkor -degradazioarekiko erresistenteak diren eragin toxikoengatik- eta bioakumulatibo gisa gaineratu da.³

¹ HCH kontzentrazioarako urteko batez besteko kalitate helburuak barneko gainazaleko uretan 100 ng/l-koak ziren estuarioetako uretan eta itsas ur lurraldekoietan izan ezik, bertan, batez beste, ezin baitzuten urteko 20 ng/l gainditu. Edan daitekeen ura sortzeko erabilitako uretan, HCHrako gehienez ere 1000 ng/l onartzen da, zehazki neurtuta, plagizidentzako 75/440/CEE Zuzentarauaren xedapenen babesean.

² http://www.who.int/water_sanitation_health/dwq/gdwq3_es_full_lowres.pdf

³ <http://www.cnrcop.es/gc/assets/docs/Lindano.pdf>

Aipatu beharra dago uren ingurumeneko kalitatearen erkidegoko politiken borneyan, 2000/60/CE Zuzentarauaren X eranskinak HCH lehenetsitako substantzia arriskutsu gisa gaineratu duela. Hori dela-eta, Europar Batasuneko estatukideek neurriak ezarri behar dituzte isurketak eten eta ezabatzeko eta, azken helburu gisa, erkidegoko ur guztietatik desagerrarazi behar dute.

Bestalde, giza erabilerarako zuzendutako urea bete behar duten baldintza bikoitza aipatu behar dugu. Zuzentarau horrek zazpigarren artikuluan ezartzen duenez, edateko urak hartzeko erabilitako urek gainazaleko uren ingurumen kalitateko helburuak bete behar dituzte -uren politikaren esparruan ingurumen kalitatearen araei buruzko 2008/1005/CE Zuzentaraan xedatutakoak- eta aldi berean 98/83/CE Zuzentarauek sortutako giza erabilerarako zuzendutako uretarako xedatutako eskaera zehatzak ere.

2008/1005/CE Zuzentarauek gainazaleko uretarako ezartzen dituen ingurumen kalitateko arauak gehenez ere 20 ng/l gainditzen ez duen urteroko kontzentrazioa onartzen dute gainazaleko ur kontinentaletarako eta urteroko 2 ng/l-ko kontzentrazioa ibai-ahoetatik gertu dauden trantsizio uretarako. Arau horiek, halaber, 40 ng/l-ko gehieneko kontzentrazioa onartzen dute gainazaleko uretarako eta 20 ng/l-koa trantsiziokoetarako. Parametro hori HCHren isometro guztien guztizko kontzentrazioa aplikatzen da. Zuzentarau hori Espainiako estatuak helarazi du uren politikaren esparruan ingurumen kalitatearen araei buruzko urtarilaren 21eko 60/2011 Errege Dekretuaren bidez, araudi hori helarazten duena,

Bestalde, giza kontsumorako zuzendutako uren kalitateari buruzko 1998ko azaroaren 3ko Kontseiluaren 93/83/CE Zuzentarauek plagizidetarako mugako balioa gaineratzen du (HCHa gaineratzen da bertan), banan-banan 100 ng/l gainditu ezin dutenak. Muga horiek 140/2003 EDan jaso dira Espainian.

Ondorioz, uneko arauzko esparruak HCHrako ezartzen dituen urteroko batez besteko kontzentrazio balioak eta onar daitezkeen gehieneko kontzentrazio balioak orokorrean gainazaleko ur guztietan aplikagarriak dira, giza kontsumorako zuzendutakoak ere barne hartuta. Erreferentziazko muga horiek eskaera handiagoa ezartzen dute, lindanoari dagokionez, plagizidetarako berariazko baldintzek baino, giza kontsumorako zuzendutako uretarakoak direnak barne.



- 5.- Aurrekoa aztertu ondoren, elkarte kexagileak egindako informazio eta parte-hartze eskaerak baloratzea dagokio.

Gertakari horren inguruan herritarrei zuzendutako informazioa eraturako ikerketa batzordeak koordinatu du. Bestalde, batzorde horrek erakundeak koordinatzeko organo bat ezarri du eta, elkarteak aldarrikatuaren aurka, ez da pertsonak, kontsumitzaileek edo elkarteek parte hartzeko aukera xedatu. Eskainitako jakinarazpenen artean 2011ko maiatzaren 30ean eta 2011ko azaroan Osasun eta Kontsumo Sailak onartutako prentsa oharra azpimarratu beharko genituzke.

140/2003 Errege Dekretuak kontsumitzaileek giza kontsumorako ur kalitateari buruzko informazio nahikoa eta egokia jasotzeko beharra, salbuespen egoerak, neurri zuzentzaileak eta prebentziozko neurriak eta horniduran eragina duten eta herritarren osasunean arriskuren bat eragin dezaketen kontu guztiak biltzen du. 29. artikulua zera xedatzen du: *"La información dada a los consumidores deberá ser puntual, suficiente, adecuada y actualizada sobre todos y cada uno de los aspectos descritos en este Real Decreto, a través de los medios de comunicación previstos por cada una de las Administraciones implicadas y los gestores del abastecimiento."*

Zehaztu beharra dago giza kontsumorako uren egoerarekin loturiko informazioa eta pertsonen osasunari eta segurtasunari buruzko informazioa ingurumeneko informazioz at jotzen direla informazioarako sarbide eskubideak, parte-hartze publikoko eskubideak eta ingurumen alorrean justiziara sartzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean araututako ondorioen arabera. Agiri publikoak eskuratzeko gardentasun eta eskubideari buruzko abenduaren 30eko 6/2010 Arartekoaren Gomendio orokorrean azpimarratzen genuenez, ingurumeneko informazioarako sarbidea unibertsalki, azkar, erraz eta doan aplikatu behar da. Pertsona guztiek balia dezakete eskubide hori, arrazoa justifikatu gabe, modu errazean, hilabetetik gorakoa ez den epe baten barruan.

Bestalde, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege orokorrak herritarrek osasun publikoaren alorrean informazioa jasotzeko duten eskubidea ezartzen du, eta kasu honetan: *"Recibir información sobre los condicionantes de salud como factores que influyen en el nivel de salud de la población y, en particular, sobre los riesgos biológicos, químicos, físicos, medioambientales, climáticos o de otro carácter, relevantes para la salud de la población y sobre su impacto. Si el riesgo es inmediato la información se proporcionará con carácter urgente."*

Aldi berean, 33/2011 lege horrek herritarren osasun publikoaren jardueretan parte-hartze eraginkorrerako eskubidea gaineratzen du, zuzenean edo taldekatutako erakundearen bidez. Horrela ezartzen du eskumena duten herri

administrazioen aginduak eskubide hori eraginkorra bihurtzen duten bide zehatzak ezartzeko.

- 6.- 2008ko urrian elkarteak Oiologo urtegiaren egoerari buruz eskatutako informazio eta proposamenen kasu zehatzean, ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidearen erabileran, aipatu beharra dugu Osasun eta Kontsumo sailak ez diola berriazko erantzunik eman eskaera horri 2011ko ekainera arte.

Bestalde, elkarteak azpimarratu du administrazio arduradunek informazio eskasa zutela 2011ko azaroaren gertakariaren ondorioz jarraitutako gainontzeko jardueren inguruan. Horrela bada, jasotako jakinarazpen bakarrak Osasun eta Kontsumo Sailak egindako prentsa oharretik jasotakoak izan ziren.

Zentzu horretan, osasun administrazioaren behartzat jo beharko genuke, esku hartu duten gainontzeko administrazioekin batera, une honetan elkarteari Oiologo urmaelaren ur kalitatearen kudeaketari buruz eman zaio informazio trukea baino hobea eskaintzeko aukera ematen duen informazio sistema sortzea, aztertutako aurrekariak ikusita.

Komunikazioan izandako atzerapenak eta gertakari berrien inguruko informazio jarraiturik ez izateak, gure ustez, administrazio horien funtzionamendu txarra islatzen du, al bait lasterren konpondu beharrekoa.

Elkarteak horren inguruan hartutako erabaki publikoei buruzko alegazioak proposatu ditu. Zehazki, ur hornidura sarean lindanoa egoteak osasunean eragin ditzakeen arriskuen inguruan ikerketak egiteko beharra aipatu du, kontuan hartu behar baitira eta dagokion moduko erantzuna bideratu behar baita.

Erakunde honen aurrean egindako kezan, elkarteak Oiologo ur kalitateari buruzko jarraipen mahai batean parte hartzea eskatu du, prozedura horretan interesa duen elkarte ekologista gisa, ingurumeneko urtegitik datozen uren kalitatearen arriskuen kudeaketan, kontrolean eta hobekuntzan parte hartzeko aukera izanez.

Arartekoari bidalitako erantzunean antzeman dugunez, Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoaren zuzendariak kontu horren inguruko komunikazio arinagoa izatea proposatu du. Hala eta guztiz ere, ez du baloratu elkarteak jarraipen batzordean parte hartzeko aukera edo mahai bat *ad hoc* eratzeko aukera, bertan administrazio arduradunak eta ingurumenaren, osasun publikoaren edo kontsumitzaileen eskubideen defentsan gizarte interesak ordezkatzeko dituzten pertsonak edo elkarteek parte hartuko dutelarik.

Organo horren eratzea ezartzen duen legezko xedapenik ez dagoen arren, urriaren 4ko 33/2011 Legeak osasun publikoan eskumena duten administrazio



publikoei agindu bat ezartzen die arlo horretan herritarren parte-hartzerako bideak zehaztu ditzan. Horrela, 5. artikulua zera xedatzen du: *“Los ciudadanos, directamente o a través de las organizaciones en que se agrupen o que los representen, tiene derecho a la participación efectiva en las actuaciones de salud pública. Las Administraciones públicas competentes establecerán los cauces concretos que permitan hacer efectivo ese derecho”*.

Erakunde honek kontu hori aipatu du abenduaren 28ko 12/2011 Arartekoaren gomendio orokorrean: Demokrazia eta herritarren parte-hartzea. Ebazpen horretan adierazten dugunez, herri administrazioek parte-hartze mekanismoak eskaini behar dituzte ingurumeneko edo osasun publikoko kontuetan gatazkak kudeatzeko, herritarrak eta elkarte interesdunak ordezkatuta egoteko. Foro horietan funtsezkoa da informazio erabilgarri guztia noiznahi eskuratzeko modua ematea eta alderdien artean komunikatzeko bideak ezartzea. Era berean, administrazioeko arlo teknikoetan ahalegina egin behar da informazioaren ulermena errazteko. Informazio hori argia, erraza eta ulergarria izan behar da eta beharrezkoak diren bitartekoak ezarri behar dira parte-hartze erreal eta eraginkorra errazteko.

Zentzu horretan, elkartearen proposamena baloratu ondoren, Osasun eta Kontsumo Sailak kontuan hartu beharko luke parte-hartze bideak ezarri beharko lirakeela proposameneren berri emateko eta entzuteko eta elkarte interesdunek kontsumorako uren kalitatearen osasun zaintzaren eskumenei dagokienez dituzten ekarpenak kontuan hartzeko.

Kexan jasotako datuak, tartean diren administrazioek bidalitako informazioa eta arestian aipaturiko oharbideak oinarri hartuta, ondoko hauek emango ditugu:

Ondorioak

Oiola urmaelean lindanorako xedatutako parametroak urratu direla antzeman ondoren zaintza jarduerak kontsumorako uren kalitatearen araudian bildutako xedapenetara egokitu dira.

Zentzu horretan, osasun publikoaren administrazio erantzulea, uraren kalitatearen kontrola eta zaintzaren sarean eskumena duten gainontzeko agenteen lankidetzarekin, prebentziorako hainbat neurri zuzentzaile adostu ditu, egun arte Oiologo uraren lindanoko kutsaduraren kontrol parametriko egokia bermatzeko balio izan dutenak, 20 ng/l inguruan, beraz, gainazaleko uretarako ingurumen kalitateko indarreko arauak jarraiki.



Urmaelak hornidura sarearekin duen konexioa berriro ere baloratu aurretik, protokoloan finkatutako parametroen betetzea egiaztatu eta justifikatu behar da, lindanoan zein sartzeko emarian.

Era berean, Oiologo urtegian HCH lehentasunezko substantzia arriskutsu gisa dagoela ebaluatu behar da, eskumeneko administrazio hidrauliko eta ingurumenekoarekin batera, isuri hori eten edo kentzera zuzendutako neurriekin jarraitzeko.

Osasun eta Kontsumo Sailak, osasun agintari gisa, eta administrazio erantzuleen taldeak, batera duten beharra gogorarazi behar dugu, hau da, elkarteari eta interesa duten beste pertsoneri Oiologo urmaelaren ur kalitatearen kudeaketari buruzko informazio zehatza, nahikoa eta eguneratua emateko beharra.

Komunikazioan izandako atzerapenak eta gertakari berrien inguruko informazio jarraiturik ez izateak administrazio horien funtzionamendu txarra islatzen du, al bait lasterren konpondu beharrekoa.

Azkenik, Osasun eta Kontsumo Sailak parte hartze mekanismoak eta informazio sistemak eskaini behar ditu kontsumo uren kalitatearen kudeaketaren inguruan. Foro horietan funtsezkoa da informazio erabilgarri guztia noiznahi eskuratzeko modua ematea eta alderdien artean komunikatzeko bideak ezartzea. Era berean, administrazioko arlo teknikoetan ahalegina egin behar da informazioaren ulermena errazteko. Informazio hori argia, erraza eta ulergarria izan behar da eta beharrezkoak diren bitartekoak ezarri behar dira parte-hartze erreal eta eraginkorra errazteko.

